

gabero joan bearra
 lotara igasi;
 ¿eta nora lotara?
 iganbara batera!
 zuazte emendikan
 zuben parajera»
 Au esanik, asi zan
 kantari gogotik,
 bestiak azkar jira
 ziran lotsaturik;
 orduban esan zioten
 usoak elkarri,
 «arrazoi egokiyak
 zizkiguk ekarri;
 eztiyagu baliyo
 ezertarako guk,
 gure aldian ayek
 libriago dituk;

kantuan ere askoz
 dituk bai obiak,
 ayek dizkitek, ayek
 abillidadiak.»
 Au esan, ta guztiyak
 lotsaz beterikan,
 gordeta bizi izan
 ziran geroztikan.

 Iruritutzen zaigu
 guri ere askotan,
 onenak geradela
 gerok guztiyetan;
 bañan eskarmentua
 laister ikusten da,
 gu baño aundiagua
 non nai azaltzenda.

BI OLLARRAK.

Ollar bat izaten zan
 baserri batian;
 bera zan jaun ta jabe
 olluen tartian;
 beti panparroi bizi
 zan denen artian,
 etzuben ollarrik nai
 ark aldamenian.
 Egun batez nagusi
 bertakuak bada,
 ekarri zuben ollar

gazte bat bertara;
 zarrarekin batian
 bizitzagatik
 bidez olluak ondo
 izatiagatik.
 Ikusirik gazte au
 ollar zar aundi ark,
 mokoka egin-zizkan
 iru edo lau mark;
 oso tirri aundiya
 artua baiziyon,

egunero kolpeka
 erasotzen ziyon;
 nola gaztia zan au,
 iſillikan penak
 supritutzen zituben
 pazientziz denak;
 esanaz «indartsua
 dalako muturka,
 erasotzendit neri
 gozero burruka;
 neri ere indarrak
 zaizkit etorriko,
 orduan ez diyot nik
 berari utziko»
 Ala luzaro samar
 bizi zan penetan,
 gaitzoaren mendian
 triste ta neketan.
 Denbora batez zuben
 igarri, indarra
 naikua bazeukala
 (poztu zan ollarra.)
 Berialaſen joan zan
 ollar zarragana,
 esanaz, «aitu zazu
 arrazoya, dana,
 nagusiyak gu biyak
 berdin maite gaitu,

naitasun geyagorik
 iñori ez baitu;
 bada nik ere nai det
 zedorrek bezela,
 ollo batzuben jabe
 izan, bai; bestela
 aserria izango da
 elkarren artian;
 soziyuán bezela
 bizitu gaitian.»
 Ollar zarra tirriyaz
 lengoko modura,
 abiyatu zan gogor
 kolpeka burura;
 baña erasorikan
 gaztiak batetan,
 buruba puskaturik
 utzi zuben bertan.

.

Onek erakusten du
 nola jaun ta jabe,
 nai izaten dutela
 gizon askok ere;
 ez diyote iñori
 opa ezer-ere,
 baña berak gelditzen
 dirade deus-gabe.

JOSÉ ARTOLA.